

I. ERANSKINA

2016-2022 ARTEKO IKASTURTEAK ITUNTZEKO IRIZPIDEAK ETA RATIOAK

1.– Itundutako ikastetxeetako ikasle-kopuru maximoak eta minimoak agertzen dira honako hauetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzeko otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuko IV. Eranskina.

- EAEko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuko 26. artikulua. Dekretu horretan arautzen da EAEko Oinarrizko Lanbide Heziketaren irakaskuntza eta ezarpena.

- Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, beharizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.

Irakaskuntza	Gehienezko ratioa	Gutxienezko ratioa
Haur Hezkuntza (bigarren zikloa)	25	17
Lehen Hezkuntza	25	17
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	30	17
Gela egonkorak – Hezkuntza Berezia	5	3
Zereginen Ikaskuntzarako Gelak	10	
Batxilergoa	35	18
Oinarrizko Lanbide Heziketa	15	12
Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak	25	12

2.– Irakaskuntza-maila bakoitzeko taldeak eratuko dira, plangintzan ezarritako muga betez eta hartarako baimena edukiz gero.

3.– Taldeak eratzea etapa bakoitzeko lehenengo ikasturteetan:

Irakaskuntza bakoitzeko lehenengo ikasturteetan eratuko dira taldeak, hizkuntza-ereduaren arabera. Batxilergoan ez dira kontuan hartuko modalitateak.

A.– Irakaskuntza bakoitzaren hasieran (Haur Hezkuntza – 3 urte, Lehen Hezkuntzako 1.a, DBHko 1.a, Batxilergoko 1.a eta Lanbide Heziketako 1.a) taldeak eratzeko gutxienezko matrikulazioa honako hau da:

3A – ETAPA BAKOITZAREN HASIERAN TALDEAK ERATZEKO BEHAR DEN IKASLE-KOPURUA			
Haur Hezkuntza		Batxilergoa	
talde 1	17	talde 1	18
2 talde	34	2 talde	36
3 talde	59	3 talde	71
4 talde	84	4 talde	106
5 talde	109	5 talde	141
6 talde	134	6 talde	176

2016ko apirilaren 27a, asteazkena

Lehen Hezkuntza	
talde 1	17
2 talde	34
3 talde	59
4 talde	84
5 talde	109
6 talde	134
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	
talde 1	17
2 talde	34
3 talde	64
4 talde	94
5 talde	124
6 talde	154

Oinarrizko Lanbide Heziketa	
talde 1	12
2 talde	24
3 talde	39
4 talde	54
5 talde	69
6 talde	84
Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak	
talde 1	12
2 talde	26
3 talde	51
4 talde	76
5 talde	101
6 talde	126

Ikastetxe batek taulan baino talde gehiago balitu, talde gehigarri bakoitzeko matrikulazio minimoa handitu egingo da 1. atalean jasotako irakaskuntza bakoitzaren ratio maximoarekin.

B.–Taldea mantentzea: Haur HezkuntzaN, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Oinarrizko Lanbide Heziketan 3A atala aplikatzearen ondorioz gutxitu egiten bada aurreko ikasturtearen aldean itundu beharreko talde-kopurua, talde horiek mantendu ahal izango dira, baldin eta etapako ikasle guztien ratioak betetzen badira. Halaber, ezin da egon osatu gabeko talderik.

3B – AURREKO IKASTURTEKO TALDEAK MANTENTZEKO BEHARREZKO IKASLE-KOPURUA, ETAPA BAKOITZEAN				
Talde-kopurua	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Oinarrizko Lanbide Heziketa
talde 1	17	17	17	12
2 talde	28	28	34	24
3 talde	45	45	51	39
4 talde	68	68	68	54
5 talde	85	85	93	69
6 talde	102	102	118	84
7 talde	125	125	143	99
Talde gehigarri bakoitzeko	+ 23	+ 23	+ 25	+ 15

4.– Aurreko ikasturteetan etapa bakoitzaren hasieran eraturako taldeak mantentzeko ratioak.

Irakaskuntza bakoitzaren hasieran eraturako taldeak hurrengo ikasturteetara zabalduz joango dira hura amaitu arte, eta itunduta jarraituko dute, baldin eta ratio hauek betetzen badira:

2016ko apirilaren 27a, asteazkena

4 – ONDORENGO IKASTURTEETAN ERATUTAKO TALDEAK MANTENDU AHAL IZATEKO IKASLE-KOPURUA				
Haur Hezkuntza			Batxilergoa	
talde 1	11		talde 1	17
2 talde	26		2 talde	36
3 talde	51		3 talde	71
4 talde	76		4 talde	106
5 talde	101		5 talde	141
6 talde	126		6 talde	176
Lehen Hezkuntza			Oinarrizko Lanbide Heziketa	
talde 1	11		talde 1	10
2 talde	26		2 talde	16
3 talde	51		3 talde	31
4 talde	76		4 talde	46
5 talde	101		5 talde	61
6 talde	126		6 talde	76
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza			Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak	
talde 1	17		talde 1	10
2 talde	31		2 talde	26
3 talde	61		3 talde	51
4 talde	91		4 talde	76
5 talde	121		5 talde	101
6 talde	151		6 talde	126

Ikastetxe batek taulan baino talde gehiago balitu, talde gehigarri bakoitzeko matrikulazio minimoa handitu egingo da 1. atalean jasotako irakaskuntza bakoitzaren ratio maximoarekin.

Lerro bakarreko ikastetxeen kasuan, baldin eta 4. taularen aplikazioak aurreko ikasturteari dagokionez ituntzekoak diren taldeen kopurua gutxitzea badakar, talde horiei eutsi ahal izango zaie; betiere, hezkuntza-etapak gogoan hartzen dituen 3B taulak ezarritako ikasle-ratioak betez gero.

5.– Ondorengo ikasturteetan taldeak gehitu ahal izateko, ikasle berrien sarrera justifikatu eta 3A ataleko ratioak bete behar dira.

6.– Matrikulatutako ikasle-kopuruaren eraginez gutxitu egin bada aurreko ikasturtearen aldean itundu beharreko talde-kopurua, murrizketa graduala izango da eta talde bat murriztuko da ikasturte bakoitzeko, beheko mailetatik hasita.

7.– Salbuespen gisa, ikastetxeek ituna eta/edo taldeak mantentzea eska dezakete Eranskin honetako ratioa baino txikiagoa izan arren. Kontuan hartuko da ikastetxea non dagoen (landan/hirian), ikasleen baldintza sozioekonomikoak eta eskualdeko hezkuntza-eskaintza. Aintzat hartuko dira, halaber, ratioa modu justifikatuan betetzen ez duten lanbide heziketako 2. eta 3. mailak.

Ikastetxeek Agindu honen 14. artikuluan aipatutako epeetan eskatu behar dituzte salbuespen horiek, salbuespena argudiatuz, eta eskualdeko gainerako ikastetxeen batez besteko egoerarekin konparazioa eginuz ikasturte bakoitzean. Zerbitzu nagusi eskudunek eskabide horiek aztertu eta Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Zuzendaritzek txostenak egingo dituzte.

2016ko apirilaren 27a, asteazkena

8.– EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuan aurreikusitako egoeretan ikasleen ratio maximoa gainditzen duten taldeak itundu ahal dira, ikasleek beren ikastetxean jarraitu ahal izan dezaten, beste ikastetxe batetik desplazatutako edo berandu hasitako ikasleak hartzeko, edo Eskolatzeko Lurralde Batzordeak erabakitako eskolatzeko berriak direnean.

Halaber, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariak, EAEko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzko ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuari jarraiki, beste ikasle-kopuru bat duten taldeak baimendu ditzake ikasleen ezaugarriengatik, ikastetxearen kokapenagatik edo oinarrizko lanbide-heziketaren ziklo bereziagatik.

9.– Gela egonkorrek eta zereginen ikaskuntzakoek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren txostena beharko dute.